

Zangoza / 2026

KULTUR AGENDA

uztaila



Ayuntamiento de
Sangüesa/Zangoza



CASA DE CULTURA SANGÜESA ZANGOZA
PALACIO VALLESANTORO



Nafarroako
Gobernua



Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxea

Kultur Zerbitzuaren arreta ordutegia: Astelehenetan 09:30etik 14:00etara eta asteartetik ostiralera, 09:30etik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara.

Erakusketa aretoko ordutegia: asteartetik ostiralera 11:30etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara. Larunbatetan 19:00etatik 21:00etara. Igande eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

Helbidea: Alfontso Borrokalaria Karrika, 2. **Telefonoa:** 948 870 251.


Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxeko Lorategian eginen diren kontzertuetarako sarrera doan izanen da. Kontzertura sartzeko lorategiko atetik. Atea kontzertua hasi baino 15 minutu lehenago zabalduko da.

Lorategian jarduera programatuta dagoen egunetan, Kultur Etxea itxita egonen da arratsaldean.

Kultur agenda posta elektronikotik jaso nahi baduzu, helbide honetara eska dezakezu: infocultura@sanguesa.es.

Facebooken eta www.sanguesacultura.es web-orrian gure kultur agenda jarrai dezakezu eta datuak babesteko legea hemen kontsultatu:

 www.facebook.com/culturasanguesa  www.instagram.com/culturasanguesa

 Kultur agenda orain whatsapp bidez ere bai.

Jaso ezazu kultur jardueri buruzko informazioa zuzenean zure mugikorrean, gure hedapen-kanal berriari jarraituz.

Karmengo Entzunaretoa

Beharpenak Gazte txartelarekin: 14 eta 30 urte bitartekoa bazara, hala adierazten den saioetan beharpenez gozatu ahal izanen zara. Gazte Txartela leihatilan aurkeztu beharko da entzunaretoa sartzean, sarrera hor bertan edo internet bidez erosi bada ere.

ENTZUMENA HOBETZEKO ANTZERKI IRISGARRIA

Karmengo Entzunaretoak badauka begizta magnetikoko sistema bat inguruko hotsa kendu ahal izateko. Hartara, entzumen-arazoak dituzten lagunek ikuskizunez hobeki gozaten ahal dira. ERNE! sistema hau audiofona erabiltzen dutenek ez ezik ongi entzuten ez dutenek ere erabiltzen ahal dute inolako aparaturik eraman ez arren.

Bi kasuetan entzungailua edo begizta aretoko langileei eskatu behar zaizkie.

ANTZERKI IRISGARRIA MUGIKORTASUN MURRIZTUA DUTEN LAGUNENDAKO

Karmengo Entzunaretoak mugikortasun murriztua duten lagunendako gune bat gordetzen du. Eserleku hauetako bat hartu behar bada edo erreserba hau egiteko laguntza behar baduzue, jarri harremanetan Kultur Zerbitzuarekin infocultura@sanguesa.es posta elektronikokoan edo deitu 948870251 telefonora. Txartel-leihatilan ere adieraz daiteke erosketa egiterakoan.

Zangozako Udalak ez du bere gain ardurarik hartzen, aldatzen diren edo betetzen ez diren ekitaldiengatik, baldin eta hauek egitarau honetan ez badira aditzera eman.

Datuak babesteko legea hemen kontsulta dezakezu: www.sanguesa.es

KULTUR AGENDA

uztaila



1	Az		
2	Og		
3	Os	Erakusketa «La vida cotidiana en la Sangüesa medieval»	4. Orr.
4	La		
5	Ig		
6	Al		
7	As		
8	Az		
9	Og		
10	Os		
11	La		
12	Ig		
13	Al		
14	As		
15	Az		
16	Og		
17	Os		
18	La		
19	Ig		
20	Al		
21	As		
22	Az	Udako zinea. «Cómo entrenar a tu dragón 2»	4. Orr.
23	Og		
24	Os	Lorategirako musika. Santi Gandul «Canta por Sabina»	5. Orr.
25	La		
26	Ig	Antzeturiko bisita	6. Orr.
27	Al		
28	As		
29	Az	Udako zinea. «Paddington, aventura en la selva»	4. Orr.
30	Og		
31	Os	Dantza lorategian. iXa konpainia. «3 historias de dos»	6. Orr.

abuztua

2	Ig	Antzeturiko bisita	6. Orr.
7	Os	Lorategirako musika. Her Itage «Mujeres que suenan»	5. Orr.

Azaleko irudia: «3 historias de dos» iXa konpainia.

Erakusketa



«La vida cotidiana en la Sangüesa medieval»

UZTAILAREN 3TIK ABUZTUAREN 16RA

«Eguneroko bizitza Erdi Aroko Zangozan» izenburupean, erakusketak hiriaren historiaren ikuspegi hurbila eskaintzen du, Alfontso Borrokariariak XII. mendean sortu eta ondoren garatu zenetik, elikaduraren, txanponaren edo janzkeraren bidez bizitzeko moduak, baita Zangozako faktore bereizgarrienak ere, Donejakue bidea eta Almadiazainen ibilbidea bezalako ibilbide historikoetan kokapena kasu.

Erakusketa azalpen-panelek osatzen dute, eta XIX-XV. mendeetan Zangozan bizi izan ziren pertsonen eguneroko ibilbidea egiten dute. Bereziki udan bisitatzen gaituzten eta gure hiriaren iragana nola sortu den baino zerbait gehiago ezagutu nahi duten pertsoneri zuzenduta dago.

Lekua: Zangozako Vallesantoro Jauregia/ Kultur Etxeko Erakusketa aretoa.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.

Orduetgia: Asteartetik ostiralera, 11:30etik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara. Larunbatetan 19:00etatik 21:00etara. Igande eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

Udako zinea



«Cómo entrenar a tu dragón 2»

ASTEAZKENEAN, UZTAILAK 22

Abenturak. 125 minutu. Jende guztiarendako egokia.

Mema uharte malkartsuan, non bikingoek eta herensugeek etsaitasun mingotsa izan duten belaunaldi belaunaldi, Hipo bestelako mutila da. "Estoico el Inmenso" buruzagiaren seme burutsu eta gutxietsiak mendeetako tradizioa desafiatzen du, Furia Nocturna motako Desdentao herensuge beldurgarriarekin adiskidetzuz.



«Paddington, aventura en la selva»

ASTEAZKENEAN, UZTAILAK 29

Abenturak. 106 minutu. Jende guztiarendako egokia.


Paddingtonek bere izeba maitea, Lucy, Hartz Erretiratuen Etxetik desagertu dela jakiten duenean, bera eta Brown familia Peruko oihanetara joanen dira bila.

Ordua: 22:00.

Lekua: Karmengo atzealdea.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.

Lorategirako musika



MUSIKA

Santi Gandul «Canta por Sabina»

SANTI GANDUL

OSTIRALEAN, UZTAILAK 24

«Santi Gandul» (bai, Aragoiko «Los Gandules» umorezko bikotekoa) gure herrialdean azken urteotan emanaldi gehien egin dituen musikarietako bat da. Aipatutakoen ahotsa eta gitarra, telebistako, zinemako eta irratiko kolaboratzailea... («¡qué no para vamos!») Ilusio handiz egiten dio aurre gure herrialdeko erreferente artistiko musikal handienetako baten omenezko proiektu honi: Joaquín Sabina.

Umerez egindako sarrerak eta arrakasta handi guztiak biltzen dituen abesti-errepertorioa eta oso zaleendako harribitxiren bat dira metaforaren jenio handiari eta gaueko poeta zurrulenari eginiko omenaldi honetan funtsezko bi argudioak.

Iraupena: 75 minutu.

Ikusleak: gazteak eta helduak.

Ordua: 20:30.

Lekua: Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxeko Lorategia.

Sarrera doan.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernu.



MUSIKA

«Mujeres que suenan»

HER ITAGE

OSTIRALEAN, ABUZTAK 7

Interpretatzaileak: Marta Aparicio eta Elena Martínez.

«Emakume soinudunak» ibilbide narratibo-musikala da abestietan barrena eta hainbat emakume-belaunaldiren ikusezin bihurturiko istorioak. Ikuskizun berritzailea da, emakumeek musikan egiten dituzten ekarpen sozial eta kulturaleri buruz taldean hausnartzera gonbidatzen duena.

Iraupena: 60 minutu.

Ikusleak: gazteak eta helduak.

Ordua: 20:30.

Lekua: Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxeko Lorategia.

Sarrera doan.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernu.



Dantza lorategian



«3 Historias de dos»

IXA KONPAINIA

OSTIRALEAN, UZTAILAK 31

Interpretatzaileak: Xián Martínez, Paula Urquijo eta Elena Castellanos.

«Biren 3 istorio» dantza garaikideko hiru pieza laburreko programa bat da, IXa konpainiaren proiektuetako batzuk biltzen dituena, bikote formatuan. Dantza garaikidea herritarrengana hurbiltzeko proiektuak sortzeko filosofiari eutsiz, ikuskizunak 15 minutuko iraupena duten hiru lan aurkezten ditu, iruditeria eta proposamen desberdinetatik bidaiatzen dutenak, ikuskizun dinamiko eta irisgarri bat eraikiz publiko guztiendako: «Dislada» gizateriaren historian zehar femeninoaren erreferente izaten saiatu diren erreferente toxikoen inguruan eraikitako bikote gisa aurkezten da; «Ollos cara adentro» piezak XX. mende hasierako artista surrealisten ikuspegitik amets egiteko ekintza bisitatzen du; eta «Con/Sin/In-TACTO» piezan, bi pertsonaren historia afektiboa bisitatuko dugu, haien arteko harremana hasi zenetik.

Iraupena: 45 minutu. **Ikusleak:** Gazteak eta helduak.

Ordua: 20:30. **Lekua:** Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxeko Lorategia.

Sarrera doan. Laguntzailea: Nafarroako Gobernu.

Antzezturiko bisitak



«Buen camino...»

PRODUCCIONES ADRIANA OLMEDO

IGANDEAN, UZTAILAK 26 eta ABUZTUAK 2, 9, 16 eta 23

Antzerkilariak: Adriana Olmedo, Nerea Bonito eta Xabi Artieda.

Ekitaldi paranormaletan aditua den youtuber ospetsua prest dugu Zangozako Karmengo klaustroan bere atalik onena grabatzeko. Lainoetako arimak, Bideko espirituak, behin baino gehiagotan agertu omen dira han... Animatzen zara streaming bidezko atal honetan parte hartzera? Baina... ezer ez da aterako berak espero bezala. Sorpresek eta ezustekoek ibilbide bat egitera eramanen dute, non kondairak, istorioa eta pertsonaia beldurgarriak aurkituko dituen, geure artean... Izuarekin zer ikusirik ez! Sartu «Biderik» dibertigarrienean Zangozako Ondareaz gozatuz, inoiz ikusi ez duzun bezalaxe.

Ibilbidea: Karmengo komentuko klaustroa, Vallesantoro Jauregia, Amadores karrika, Santiago Eliza, Santa María la Real Eliza, Aragoi ibaia.

Topalekua: Karmengo komentuko klaustroa.

Ordua: 11:30etik 13:00era. **Bisitak doan.**

Argibideak: Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxea.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernu.